

Nahia Tubia Nazabal

Emaila • Aipamena

Nahia Tubia Nazabal dut izena, 2006ko irailaren 27an jaio nintzen. Ordizian bizi naiz eta Murumendi ikastetxean ikasten dut.

Hobbie asko ditut esaterako; zaldian ibiltzea, irakurtzea eta dantza egitea (nire idazlanean ikus zitekeen bezala).

Arratsalde guztietan zerbait egiteko dut, zereginik ez dudanean, irakurtzea gustuko dut.

Handitan gauza asko egitea gustatuko litzaidake; liburu bat idaztea, bidaiatzea eta abenturak bizitzea, beteak beste.



KAIXO MAITEA

Kaixo maitea:

Jaso ditut nire belarrietara eguna joan eta eguna etorri bidali dizkidazun mezu erromantikoak. Esaten dizkidazun gauzak oso politak dira eta sarritan lotsa gorritu egiten naiz. Orain ere zure mezuetan pentsatze hutsarekin tomatea bezain gorri nago.

Egunero zurekin egoten naiz, patioan, etxean, bakarrik nagoenean, lagunekin nagoenean... Zurekin oso ondo sentitzen naiz, lasaitu egiten nauzulako, haserre nagoenean, urduri nagoenean... Pozez betetzen nauzu beti, berdin du non eta noiz, beti ni pozik sentitzea lortzen duzu, honez gain, triste nagoenean adorea ematen didazu.

Inoiz ikusi ez zaitudan arren, entzuten zaitudanean, belarri batetik sartu, eta hanketako behatzetaraino iristen zara eta handik gelditu ezineko mugimendu bat sortzen zait. Zurekin nagoenean bihotz taupadak maiteminduta egongo banintza bezala izaten ditut, bortitz eta azkar.

Gau guztia zurekin ametsetan pasa du, Parisen, amodioaren hirian geundela amestu dut. Maite zaitut idatzi genuen maitasunaren harresian; ondoren bizitza erromantikoaren museora joan ginen... Oso ondo pasatu genuen. Ilunabarrean Eiffel Dorrearen puntan muxu bat eman genuen, gero Sena ibaian barrena txalupa batean afaldu genuen. Oso erromantikoa zen dena. Eskolan nagoenean irakasleak despistatuta nagoela esaten didate, baino une oro zure begiak buruan ditudalako da.

Zurekin ibiltzeko kirol jertse grisa eta galtza beltzekin egotea dut gustuko. Ilea jasota eta zapatila zuriekin. Txikitatik maite izan zaitut. Batzuetan zurekin egoteko beste gauza askori

uko egin behar izan nien. Baina ez naiz inoiz damutu nire aukeraketez. Zurekin nire maitasuna lau haizetara erakutsi dudanean ez naiz inoiz lotsatu eta beti harro egon izan naiz.

Gaur zurekin zita bat daukat eta goizean esnatu naizenetik tximeletak nabaritu ditut sabelean. Irrikaz nago zu ikusteko.

Bizitzak desio bat eskatzeko aukera emango balit, zu berriz ezagutzea deseaturiko nuke.

DANTZA, ESKERRIK ASKO!

Adeitasunez: Nahia.